



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko uztailaren 15a

75. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Figarolgo Kontzejuari buruzko 2018ko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Figarolgo Kontzejuari buruzko 2018ko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 22an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Figarolgo Kontzejuari buruzko 2018ko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Figarolgo Kontzejuari buruzko 2018ko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**

**I.** Sarrera (3. or.).

**II.** Figarolgo Kontzejua (3. or.).

**III.** Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa (4. or.).

**IV.** Iritzia (5. or.).

IV.1. Auditoretza finantzarioko iritzia (6. or.).

IV.2. Legedia betetzeari buruzko iritzia (6. or.).

**V.** Finantzen egoera-orriak (7. or.).

V.1. 2018ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria (7. or.).

V.2. 2018 ekitaldiko aurrekontu-emaizta (8. or.).

V.3. Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria 2018ko abenduaren 31n (8. or.).

V.4. Kontzejuaren 2018ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (9. or.).

V.5. Kontzejuaren 2018ko abenduaren 31ko emaitza-kontua (9. or.).

**VI.** Konklusioak eta gomendioak (10. or.).

VI.1. Figarolgo Kontzejuaren aurrekontu orokorra (10. or.).

VI.2. Kontzejuaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2018-12-31n (11. or.).

VI.3. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak betetzea. (11. or.).

VI.4. Kudeaketa-alor garrantzitsuak (12. or.).

## I. SARRERA

Kontuen Ganberak, jarraiturik bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari eta 2020ko jardueraprogramari, Figarolgo Kontzejuaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu du.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarreanean, kontzejuaren datu esanguratsuenak deskribatzen ditugu; hirugarrenean, gure fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa identifikatzen ditugu; laugarrenean, kontzejuaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorrari buruzko iritzi finantzarioa eta legezketasuna betetzeari buruzkoa ematen ditugu; horren laburpena bosgarren atalean jasotzen da. Seigarrenean, konklusio eta gomendio batzuk ematen ditugu kontzejuaren aurrekontu- eta finantza-egoerari, aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko printzipioen betetzeari eta kudeaketa-alor garrantzitsuenei buruz.

Landa-lana 2020ko martxoan egin du lantalde batek, zeina auditoretzako bi teknikaririk eta auditore batek osatua baitzegoen. Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administrati- boen lankidetzara ere izan dute.

Jarduketa honen emaitzak Figarolgo Kontzejuko lehendakariari azaldu zitzaizkion, egokitzen zituen alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legeko 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.

Epea iraganda, ez da alegaziorik aurkeztu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu kontzejuko, Zarrakazteluko Udaleko eta Toki Administrazioaren eta Despopulaztearen Zuzendaritza Nagusiko langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

## II. FIGAROLGOKONTZEJUA

Figarol Tuterako merindadean dagoen kontzeju bat da, 2018ko urtarrilaren 1ean zuzenbideko 314 biztanle zituen eta 14,15 km<sup>2</sup>-ko azalera duena. Zarrakazteluko Udalak duen kontzeju bakarra da.

Figarolgo Kontzejua da 1949an onetsitako Uretzalurren Kolonizazioari eta Banaketari buruzko Legearen ondorio gisa 60ko hamarkadan fundaturiko toki entitate bat. Lege hori Plan Hidrologiko Nazionalarekin lotuta zegoen, eta Estatu guztian zehar banaturiko 226 herri berri sortzea aurreikusten zuen. Nafarroan lau herri sortu ziren, eta horietako bat da Figarol.

Kontzejua osatzen dute Kontzejuko Batzarrak, lehendakariak eta idazkariak. Azken hori kontzejuko kideen artean izendatua da.

Kontzejua Mairagako Mankomunitateko kidea da, eta haren bidez kudeatzen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak (ur-hornidura eta behe presioko saneamendua) eta hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendurako zerbitzuak. Horrez gain, Zarrakazteluko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko kidea da. Mankomunitate horri 7.053 euro ordaindu dizkio kontzejuak 2018an.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 39. artikulua honako eskumen hauek ezartzen ditu kontzejuentzat:

“39. artikulua

1. *“Kontzejuen kudeaketa eta administrazio organoetarako dagokien ondoko arlo hauei buruzko eskumenen erabilpena:*

a) Ondarearen administrazioa eta kontserbazioa, bai eta haren aprobetxamendua eta erabilera antolatzea eta arautzea ere; b) Bere mugapeko landa bideen mantentze- eta zaintza-lanak, bai eta Kontzejuaren interesekoak baizik ez diren erabilera eta zerbitzu publikoko gainerako ondasunenak ere; c) Udalarengandik aginduzko txosten loteslea jaso ondoren, planeamenduen arabera hiri-

gintza-lizentziak ematea; d) Bideak garbitzea; e) Argiteria publikoa; f) Hilerrien zaintza eta mantentze lanak; g) Kontzejuko artxiboa; h) Herriko jaiak".

Gainera, Zarakazteluko Udalak kontzejuari delegatuta dauzka, besteak beste, uraren ziklo integralaren gaineko eskumenak eta hondakin-bilketa eta -tratamendurakoak.

Kontzejua Mairagako Mankomunitateko kidea da, eta haren bidez kudeatzen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak (ur-hornidura eta behe presioko saneamendua) eta hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendurako zerbitzuak. Horrez gain, Zarakazteluko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko kidea da. Mankomunitate horri 7.053 euro ordaindu dizkio kontzejuak 2018an.

Kontzejuak ematen dituen zerbitzu publikoak eta horiek emateko modua honako hauek dira:

Zerbitzua	Zuzeneko kudeaketa	
	Kontzejua	Mankomunitatea
Argiteria publikoa	X	
Hilerria	X	
Kale garbiketa	X	
Bideak mantendu eta zaintzea	X	
Gizarte zerbitzuak		X
Ikastetxe publikoak mantentzea	X	
Kontsultategia	X	
Uraren ziklo integrala		X
Hondakinen bilketa eta tratamendua		X
Igerilekuak	X	

2018an kontzejuari aplikatzekoa zaion arau-esparrua honako hauek osatzen dute, funtsean: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea; Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea; Toki Araubidearen Oinarrizko ezartzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea; Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, eta araudi sektorial indarduna.

### III. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Kontzejuaren 2018ko ekitaldiko finantzei eta lege-betetzeari buruzko fiskalizazioa egin da, honako honi buruzko iritzia emateko:

- Ea 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorrak, alderdi esanguratsu guztietan, irudi fidela ematen duen 2018ko abenduaren 31ko ondareari, finantza-egoerari, aurrekontu-likidazioari eta emaitza ekonomikoari buruz, aplikatzekoa den arau-esparruari jarraikiz eta, bereziki, bertan jasota dauden kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -irizpideei jarraikiz.
- Ea kontzejuak 2018ko ekitaldian zehar egindako jarduketak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta Kontu Orokorrean jasotako informazioa bat datozen, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Aurreko iritzia emateaz gainera, lanak barne hartu du berrikuspena egitea 2018rako finkatutako aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuen betetzeaz.

Fiskalizazioaren norainokoa Figarolgo Kontzejuaren 2018ko Kontu Orokorra da, zeinaren osagaiak, 273/1998 Foru Dekretuaren arabera, honako hauek baitira:

- Kontzejuaren kontua, elementu hauek biltzen dituena:
  - a) Aurrekontu-likidazioaren espedientea.
  - b) Ekonomia-, ondare- eta finantza-egoeraren espedientea, zeina egoera-balantzeak eta galera-irabazien kontuak osatzen baitute.

c) Kontzejuaren kontuaren eranskinak.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2018ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruzko beharrezko egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

Lege-betetzeari dagokionez, norainokoa txosten honen VI. atalean aipatzen diren laginetan berrikusitako eragiketei dagokie.

#### **IV. IRITZIA**

Figarolgo Kontzejuaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honen V. atalean.

##### **Kontzejuaren erantzukizuna**

Lehendakaria da kontu orokorra osatzeko ardura duena. Kontua halako moduz egin behar du non leialki irudikatuko baititu kontzejuaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek barne hartzen ditu Kontu Orokorra iruzurraren edo akatsen ondoriozko oker materialik gabe egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren taxuketa, ezarpena eta mantentzea.

Kontzejuko Batzarrak 2019ko apirilaren 13an onetsi zuen Kontu Orokorra.

Kontzejuak bermatu behar du ezen urteko kontuek erakusten dituzten jarduerak, aurrekontu-nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatu beharreko arauarekin, eta halaber ezarri behar ditu helburu horretarako beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak.

##### **Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna**

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako Kontu Orokorraren fidagarritasunari buruz eta egin diren eragiketen legezotasunari buruz, gure fiskalizazioan oinarrituta.

Horretarako, aipatutako fiskalizazioa egin dugu Kanpo Kontrolako Erakunde Publikoek dituzten oinarritzko fiskalizazio-printzipioei jarraituz; zehazki, "Fiskalizazio Finantzarioaren Oinarritzko Printzipioak" izeneko ISSAI-ES 200 delakoak ezartzen ditueni eta "Betetze-fiskalizazioaren Oinarritzko Printzipioak" izeneko ISSAI-ES 400 delakoak ezartzen ditueni jarraituz. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta betearaztea egin ditzagula ere, honako helburu honekin: arrazoizko segurtasun bat lortzea kontu orokorretan akats materialik ez egoteaz; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduerak, finantza-eragiketak eta informazioa arau indardunen arabera izatea alderdi adierazgarri guztietan.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu ditzagula auditoretza-ebidentzia bat lortze aldera zenbatekoei eta Kontu Orokorrean adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela arriskuaren balorazioa, hala iruzur edo errakuntzaren ondorioz kontu orokorreko akats materialak izatearen arriskuarena nola lege-urraketa muntadunak egotearen arriskuarena. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak kontuan hartzen du entitateak Kontu Orokorra egin ditzan muntaduna den barne kontrola, inguruabarren arabera egoki diren auditoretza-prozedurak taxutze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzi bat emateko xedez.

Auditoretza batek barne hartzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaren eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasunaren ebaluazioa, bai eta Kontu Orokorraren aurkezpenaren ebaluazioa ere, osoki aintzat hartuta.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia eskaintzen du finantzen eta betetzearen gaineko gure fiskalizazio-iritzia funtsatzeko.

#### IV.1. AUDITORETZA FINANTZARIOKO IRITZIA

##### **Salbuespendun iritziaren oinarria**

- a) Kontzejuak ez dauka inbentariarik bere ondasunak behar bezala identifikatuta eta balioetsita jasotzen dituenik.
- b) Ibilgetuaren kontabilitate-saldoa zero da, kontabilitate-aplikazioaren hasierako karga ez delako egin eta, halaber, ez dagoelako lotuta inbertsio-partidekin, hala aurrekontu-gastuei nola - dirusarrerai dagokienez.
- c) Diruzaintzako gerakinean eta balantzean ez da jasotzen ordaintzeko dagoen betebeharrat, 58.860 euroko zenbatekoa duena.

##### **Iritzia**

Gure iritziz, "Salbuespendun iritziaren oinarria" atalean azaldutako norainokoaren mugek eta deskribaturiko egitateek izan ditzaketen balizko eraginengatik izan ezik, erantsitako Kontu Orokorrak irudi zehatza erakusten du alderdi adierazgarri guztietan, kontzejuaren ondareaz eta 2018ko abenduaren 31ko finantza-egoeraz. Halaber, kontu orokorrak emaitza ekonomiko eta aurrekontukoak islatzen ditu, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkionak, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideei jarraituz.

#### IV.2. LEGEDIA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

##### **Salbuespendun iritziaren oinarria**

- Kontzejuak 30.492 euro ordaindu dizkio ordezkari bati festa-orkestren gastuengatik, horretarako lizitazio-prozedura egin izan gabe
- Errentamendu-etxebizitzan esleipena zuzenean egiten du lehendakariak, konkurrentzia publikoko lizitazioaren bitartezko lehia-prozedura aginduzkoari jarraitu gabe.

##### **Iritzia**

Gure iritziz, "Salbuespendun iritziaren oinarria" paragrafoan azaldutako egitateengatik izan ezik, eta berrikusitako lanaren norainokoa kontuan hartuta, kontzejuaren 2018ko ekitaldiko egoera-orri finantzarioetan agerturiko jarduerak, finantza-eragiketak eta informazioa alderdi esanguratsu guztietan bat datoz aplikatzekoak diren arauekin.

**V. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK**

Ondoren kontzejuaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorraren kontabilitateko egoera-orri garrantzitsuenak erakusten ditugu.

**V.1. 2018ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA****Gastu-aurrekontuaren betetzea Sailkapen ekonomikoa**

Gastuak	Hasierako kreditua	Behin betiko kreditua	Aitorturiko betebeharrak	Ordainketen betetzea, %	Ordainketak (%)	
1. Langile-gastuak	72.900	72.900	70.008	96	68.753	98
2. Ondasun arruntetako gastuak	175.000	175.000	166.444	95	158.221	95
3. Finantza-gastuak	3.100	3.100	1.731	56	1.731	100
4. Transferentzia arruntak	12.480	12.480	8.299	66	8.299	100
6. Inbertsio errealak	27.354	27.354	21.358	78	21.358	100
9. Pasibo finantzarioak	33.008	33.008	33.005	100	33.005	100
<b>Guztira</b>	<b>323.842</b>	<b>323.842</b>	<b>300.845</b>	<b>93</b>	<b>291.367</b>	<b>97</b>

**Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa**

Diru-sarrerak	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Kobranten betetzea (%)	Kobrantzak (%)	
1. Zuzeneko zergak	2.466	2.466	2.314	94	1.651	71
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	19.211	19.211	17.041	89	16.655	98
4. Transferentzia arruntak	166.800	166.800	166.586*	100	116.586	70
5. Ondarearen eta herri-lurren aprobetxamenduaren bitartezko diru-sarrerak	94.093	94.093	89.273	95	82.063	92
7. Kapital-transferentziak eta beste batzuk	33.594	33.594	33.594*	100	0	0
9. Pasibo finantzarioak	7.778	7.778	0	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>323.842</b>	<b>323.842</b>	<b>308.808</b>	<b>95</b>	<b>216.955</b>	<b>70</b>

\*Ganbera honek doitutako zenbatekoak

## V.2. 2018 EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2017*	2018
Aitorturiko eskubide garbiak	273.921	308.808
Aitorturiko betebeharrak garbiak	274.292	300.845
Aurrekontu-emaiza	-371	7.963
Doikuntzak		
Finantzaketaren desbideratze positiboa**	-	26.875
Finantzaketaren desbideratze negatiboa	-	-
Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturako gastuak	-	-
Aurrekontu-emaiza doitu**	-371	-18.912

\* Auditatu gabeko ekitaldia

\*\*Ganbera honek doituako zenbatekoak (VI.4.4 atala)

## V.3. DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2018KO ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2017*	2018	Aldea (%)
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	35.733	95.655	168
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	55.270	91.853	-
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	31.906	33.812	-
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	2.591	2.591	-
(-) Bilketa zaileko eskubideak	54.034	32.601	-
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	112.007	102.787	-8
(-) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	81.670**	9.478	-
(-) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	622	59.482**	-
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	29.715	33.827	-
(+) Diruzaintzako funts likidoak	79.576	55.004	-31
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	-	-	-
Diruzaintzako gerakina, guztira	3.302	47.872	1.350
Diruzaintzako gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	-	-	-
Diruzaintzako gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	-	-	-
Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarako	3.302	47.872	1.350

\* Auditatu gabeko ekitaldia

\*\*Ganbera honek doituako zenbatekoa (VI.4.4 atala)



## V.4. KONTZEJUAREN 2018ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

Deskribapena	2017*	2018	Deskribapena	2017*	2018
<b>A Ibilgetua</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>A Funts berekiak</b>	<b>-202.234</b>	<b>-161.266</b>
1 Ibilgetu materiala	0	0	1 Ondarea eta erreserbak	-241.411	-161.758
2 Ibilgetu ez-materiala	0	0	2 Entregaturiko ondasun eta eskubi-deak	0	0
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	0	0	3 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	39.177	492
4 Herri-ondasunak	0	0	<b>B Epe luzeko zorrak</b>	<b>333.605</b>	<b>300.600</b>
5 Ibilgetu finantzarioa	0	0	4 Jesapenak, maileguak eta jasotako fidantzak eta gordailuak	333.605	300.600
6 Lagapen edo adskripzio bidez jasotako ondasun eta eskubideak	0	0	<b>C Epe laburreko zorrak</b>	<b>37..973</b>	<b>43.927</b>
<b>B Zirkulatzailea</b>	<b>169.344</b>	<b>183.261</b>	5 Aurrek. itxietako eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	30.337	34.449
7 Aurrek. itxietako eta aurrekontuz kanpoko zordunak	34.498	36.404	6 Aurrekontuko hartzekodunak	7.636	9.478
8 Aurrekontuko zordunak	55.270	91.853			
9 Kontu finantzarioak	79.576	55.004			
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>169.344</b>	<b>183.261</b>	<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>169.344</b>	<b>183.261</b>

\* Auditatu gabeko ekitaldia

## V.5. KONTZEJUAREN 2018ko ABENDUAREN 31ko EMAITZA-KONTUA

Zor	2017*	2018	Hartzeko	2017*	2018
Deskribapena			Deskribapena		
61 Langile-gastuak	66.228	70.008	70 Salmentak	18.223	17.041
62 Gastu finantzarioak	1.971	1.731	71 Jabetza- eta enpresa-errentak	91.104	89.273
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	156.593	166.444	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	0	0
67 Transferentzia arruntak	9.953	8.299	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	2.314	2.314
68 Kapital-transferentziak	0	0	76 Transferentzia arruntak	162.281	138.346
69 Kalkulatutako gastuak	0	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	0	0
			78 Bestelako diru-sarrerak	0	0
D80 Ekitaldiko emaitza arrunt negatiboa	0	0	H80 Ekitaldiko emaitza arrunta	39.177	492
D82 Inbertsioen salmentetako galerak eta bestelako galerak	0	0	H82 Inbertsioen salmentako irabaziak	0	0
D83 Aktibo finantzarioen salmentetako galerak	0	0	H83 Aktibo finantzarioen salmentako irabaziak	0	0
D84 Bajak eta itxitako aurrekontuen deuseztapenak	0	0	H84 Altak eta preskripzioak, itxitako aurrekontuak	0	0
D89 Ekitaldiko emaitza ekonomiko negatiboa	0	0	H89 Ekitaldiko emaitza ekonomiko positiboa	39.177	492

\*Auditatu gabeko ekitaldia

## VI. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez fiskalizazio txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarriren bat ere.

Orobat, fiskalizazio-txosteneko iritzian adierazitako salbuespenei buruzko informazio xehea gehitu da.

Halaber, txostenak jasotzen ditu Ganbera honen ustez kontzejuaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

### VI.1. FIGAROLGO KONTZEJUAREN AURREKONTU OROKORRA

Kontzejuaren 2018rako hasierako aurrekontuak 323.842 euroko diru-sarreraren eta gastuen hasierako eta behin betiko aurreikuspenak jasotzen zituen, hurrenez hurren.

#### Aurrekontu-likidazioa

2018an, gastuak 300.845 eurokoak izan dira, eta ehuneko 93ko betetze-maila izan dute. Gastu horiek 2017koak baino ehuneko hamar handiagoak izan dira.

Diru-sarrerei dagokienez, 2018an 308.808 euroko eskubideak aitortu ziren, ehuneko 95eko betetze-mailarekin. Kasu honetan, 2017koekiko igoera ehuneko 13koa izan da.

Laburbilduz, kontzejuak 2018an gastatutako 100 euroko bakoitza honako hauetara bideratu zen eta honela finantzatu zen:

Gastuaren izaera	Ehunekoa	Finantzatze-iturria	Ehunekoa
Langileak	23	Tributu bidezko diru-sarrerak	6
Bestelako gastu arruntak	59	Transferentziak	65
Inbertsio errealak	7	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	29
Kapital-transferentziak	0		
Pasibo finantzarioak	11		

Langile-gastuek gastu guztiaren ehuneko 23 egiten dute, eta bestelako gastu arruntek, ehuneko 59. Inbertsioek ehuneko zazpi egin dute, eta gainerako ehuneko hamaika pasibo finantzarioei dagokie.

Diru-sarreretan, tributu-jatorrikoek guztizkoaren ehuneko sei egiten dute, eta transferentzia arruntek eta kapitalekoek, ehuneko 65. Gainerako ehuneko 29 ondare bidezko diru-sarrerei eta bestelakoiei dagokie.

Ondoren, 2017ko eta 2018ko ekitaldietako aurrekontu-likidazioarekin lotutako adierazle multzo baten alderaketa erakusten dugu:

	2017*	2018	Aldea (%) 2018/2017
Aitortutako eskubideak, guztira	273.922	308.808	13
Aitortutako betebeharrak, guztira	274.292	300.845	10
Diru-sarrera arruntak	273.922	275.214	1
Funtzionamendu-gastuak	232.774	244.752	5
Kapitaleko diru-sarrerak	0	33.594	-
Kapitaleko gastuak	6.602	21.357	224
Saldo ez-finantzarioa	32.576	40.968	26
Aurrekontu-emaitza doituia	-371	-18.912	-4.997

\*Auditatu gabeko ekitaldia

Aurreko bilakaeratik, honako hau nabarmendu behar dugu:

- Diru-sarrera arruntak ia berberak dira, kapitalekoek gehikuntza nabarmena izan duten bitartean; arrazoa da 2017an ez zela inolako kapital diru-sarrerarik izan, eta 2018an argiteria publikorako inbertsioaren diru-laguntza erregistratzen da, 33.594 euroan.
- Funtzionamendu-gastuek eta kapital-gastuek ehuneko bost eta 224 egin dute gora, hurrenez hurren. Termino absolutuetan, gehikuntza 11.978 eta 14.755 eurokoa izan da.
- Aurrekontu-emaizta doitu, 18.912 euroko zenbateko negatiboa duena, nabarmen jaitsi da 2017koaren aldean, VI.4.4. apartatuan aztertutako inbertsioaren ondorioz urteko finantzaketak izandako desbideratzeari dagokion doikuntzarengatik.

## VI.2. KONTZEJUAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2018-12-31n

Ondoren, 2018ko ekitaldiari buruzko adierazle ekonomiko-finantzario batzuk ematen ditugu, bai eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ere:

	2017*	2018	Aldea (%) 2018/2017
Aurrezki gordina	41.148	30.462	-26
Finantza-zama	34.917	34.736	-1
Aurrezki garbia	6.231	-4.274	-169
Finantza-zamaren adierazlea	% 13	% 13	1
Aurrezki gordinak diru-sarrera arruntan gainean egiten duen ehuneko	% 15	% 11	-26
Zorpetze-maila	% 122	% 109	-10
Zorra, guztira	333.605	300.600	-10
Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarako**	3.302	47.872	1.350
Autonomia fiskalaren indizea	8	6	-16
Kobranta zalantzarriko zordunen indizea	% 62	% 26	-58

\* Auditatu gabeko ekitaldia

\*\*Ganbera honek doitutako zenbatekoak (VI.4.4 atala)

Aurrezki gordinak ehuneko 26 egin du behera, funtzionamenduko gastuek gora egin dutelako diru-sarrera arruntak berdin geratu diren bitartean. Finantza-zaman aldaketa nabarmenik egon ez denez, aurrezki garbia iragan da 6.231 euroko balio positibotik 4.274 euroko balio negatibora.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinak 47.872 milioi euroko zenbatekoarekin, ehuneko 1350 handitu da 2017. urtearen amaierakoarekin alderatuta; hots, 44.570 euro, termino absolutuetan.

Azken batean, kontzejuak ez du zorpetze-ahalmenik etorkizun hurbilean, aurrezki garbi negatiboa duelako eta haren zorpetzearen maila ehuneko 109koa delako, alegia, araudiak ezartzen duen mugan, biztanle bakoitzeko 957 euroko zorrarekin 2018ko ekitaldia ixtean. Hala ere, kontzejuak gastu orokorretarako diruzaintza-gerakin positiboa du etorkizuneko gastuak finantzatu ahal izateko.

## VI.3. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNEN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzearen eraginetarako, Kontabilitate Nazionalako SEC 2010 irizpideei jarraituta, soilik kontzejua bera jotzen da administrazio publikotzat. 2018ko kontu orokorrean ez da informatu egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak betetzei buruz.

Hala eta guztiz ere, kontzejuaren egoerari buruzko zenbatespen bat egin dugu, 2018rako, printzipio horiei dagokienez, eta honako ondorio hauek lortu ditugu

- Aurrekontuen egonkortasun-printzipioa.

2018ko betetzearen arabera, eta kontuan hartuz VI.4.4 apartatuan aipatzen dugun oker kontabilizatutako inbertsioari egindako doikuntzak, 55.255 euroko finantzatze-ahalmena sortu da.

## Finantzaketa-ahalmena

	Zenbatekoa, 2018
Diru-sarrera ez finantzarioak	308.808
Gastu ez-finantzarioak	267.840
<b>Saldo ez-finantzarioa</b>	<b>40.968</b>
Inbertsioen kontabil. akatsen zuzenketa	15.174
SEC dela-eta egindako doikuntzak	
Ixitako ekitaldietako eta aurtengo ekitaldiko 1., 2. eta 3. kapituluetakoko diru-sarreraren kobrantzak	-887
<b>Finantzaketa-ahalmena</b>	<b>55.255</b>

- Gastuaren araua.

2018ko ekitaldiko gastu konputagarria 30.975 euro txikiagoa da gehieneko gastu-muga baino; beraz, bete egin da gastu-araua, ez baita gainditzen 2018rako baimendutako alde-tasa, ehuneko 2,4koa.

## Gastu-araua

	2018ko zenbatekoa
2017ko gastu konputagarria	306.598
% 2,4ko igoera	7.358
2018rako aurreikusitako gastu-muga	313.957
2018ko gastu konputagarria	282.982
<b>2018ko gastu-desbideratzea</b>	<b>30.975</b>

- Finantza-iraunkortasunaren printzipioa:

a) Zor publikoaren iraunkortasunari dagokionez, bete egiten da ezarritako zorrari begira ezarritako muga, ehuneko 110etik beherako adierazlea edukita, baina VI.2 apartatuan adierazi dugun moduan aurrezki garbi negatiboa edukitzeak ez dio aukerarik uzten entitateari beste zorpetze batera jotzeko.

b) Ezin izan dugu egiaztatu ordaintzeko batez besteko aldia, fakturen erregistrorik ez dagoelako. Hala ere, egiaztatu dugu ez dela betetzen Merkataritza-zorraren iraunkortasunaren baldintza, luzatu delako argiteria publikoa berritzeko inbertsioa ordaintzeko epea; hura 2017an exekutatu zen eta VI.4.4 apartatuan aipatzen dugu.

Gure gomendioak:

- *Finantzatze-ahalmenaren eta gastu-arauaren kalkulua egin bedi aplikatzekoa den araudiak horretarako ezartzen dituen doikuntza guztiak aintzat hartuz.*

- *Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea kalkulatu eta argitaratzea.*

## VI.4. KUDEAKETA-ALOR GARRANTZITSUAK

## VI.4.1. Alderdi orokorrak

Entitatearen 2018ko ekitaldiko aurrekontu orokorra 2018ko otsailaren 2an onetsi zuen Kontzejuko Batzarrak.

Kontu Orokorrari buruz egindako berrikuspenetik, honako hau adierazi nahi dugu:

- Kontu Orokorraren espedienteak ez ditu barne hartzen, besteak beste, ez finantzaketa atxikia duten gastuen egoera-orria ez eta kontu-hartzailetzaren txostena ere.

- Ez dago jasota Kontzejua ondasunak behar bezala identifikaturik eta balioetsirik duen inventariorik dagoenik.

- Ez dakigu zein diren, guztira, 2011tik 2014ra bitarteko urteei dagozkien itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuetatik kanpoko zordunak eta hartzekodunak, kontzejuak adierazten duenaren arabera arazo informatiko baten ondorioz datuen galera izan zelako aplikazioan.

Gastuak onesteko prozedurari dagokionez, aipatzekoa da lehendakariak ez duela burutzen haiek onesteko egintza administratiboa.

Gure gomendioak:

- *Aurrekontu orokorra legez aurreikusitako epeetan onetsi eta argitaratzea.*
- *Kontu Orokorraren espedienteetan sartzeari finantzaketa atxikia duten gastuen egoera-orria eta kontu-hartzailetzaren txostena.*
- *Udal-inbentarioa onetsi eta gaurkotzea, eta inbentarioko alden eta baje jarraipena egiteko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkatzeko eta egoera-balantzean kontabilitateko ibilgetuari berdinkatzea eta egunean jartzea erraztuko duena.*
- *Gastuak ordaindu aurretik onestea.*

#### VI.4.2. Langile-gastuak

Langile-gastuak 70.008 milioi eurokoak izan ziren 2018an. Ekitaldi horretan aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 23 egiten dute. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 96 izan zen.

Honako hau da langile-gastuen xehakatzeari eta 2017ko ekitaldikoarekiko alderaketa:

Kontzeptua	Aitortutako betebehargarbiak, 2017	Aitortutako betebehargarbiak, 2018	Aldaketa (%)
Lan-kontratudunen ordainsariak	49.875	52.582	5
Kuotak, prestazioak eta zama sozialak	16.353	17.427	7
<b>Guztira</b>	<b>66.228</b>	<b>70.008</b>	<b>6</b>

Langile-gastuek ehuneko seiko gorakada izan dute 2017koekin alderatuta, zerbitzu anitzetako langile bat aurreko urtekoa baino epe luzeagoz kontratu izanaren ondorioz.

Kontzejuak 2018an ez du langileen plantilla organikorik onetsi.

Kontzejuko langileria osatzen dute zerbitzu anitzetako langile batek eta administrari ofizial batek. Azken horrek lanaldi partziala dauka. Udan bi sorosle kontratatzen dituzte igerilekurako, eta zerbitzu anitzetako beste langile bat.

Kontzejuaren bost langileen ordainsariak fiskalizatu ditugu. Eginiko berrikuspenetik ondoriozta dezakegu ezen, oro har, langile-gastuak bat datozela betetzen ari diren lanpostuen gastuekin eta haien administrazio- eta familia-inguruabarrekin, eta egokiro kontabilizatuta eta ordainduta dardela. Dena den, honako akats hauek aipatu behar ditugu:

- Ez dugu langile bakoitzarentzako espediente bat aurkitu, non bakoitzaren inguruabar pertsonalak eta horiei buruz emandako administrazio-egintzak jasoko baitira.
- Bi langilek guztira 1.282 euro egiten duten ordainsariak jaso dituzte, aparteko orduengatik eta kilometrajeagatik, nominan behar bezala sartu gabe.

Gure gomendioak:

- *Plantilla organikoa onetsi eta argitaratzea.*
- *Langile-espedienteak egitea, non jasoko baitira haien inguruabar pertsonalak eta horiei buruz ematen diren administrazio-egintzak.*
- *Nominan sartzeari langileei ordaindutako aparteko orduak eta joan-etorrietarako gastuak.*

### VI.4.3. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak

Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak 166.444 eurokoak izan ziren 2018an. Ekitaldian aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 55 egiten dute, eta haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 95ekoa izan da.

Gastu horiek ehuneko sei egin dute gora 2017ko ekitaldiarekin alderatuta.

Honako gastu-lagin hau aztertu dugu —kapituluko gastuen ehuneko 66ren adierazgarri da—:

Deskribapena	Aitortutako betebeharrak garbiak, 2018
Jaiak	69.495
Igerilekuen mantentzea	10.014
Bideak mantentzeko lanak	9.885
Ureztatzailen elkartea, ura, lurrak	6.875
Aseguruak: erantzukizun zibila, istripuak eta eraik.	6.320
Kontzejuaren eraikinak garbitzea	6.205
Administrazio kudeaketa	1.525

Egin dugun berrikuspenetik ondorioztatzen dugu ezen, oro har, fiskalizaturiko laginean gastuak justifikatuta eta egokiro kontabilizatuta eta ordainduta daudela. Dena den, akats hauek ere aipatu behar ditugu:

- Kontzejuaren eraikinak garbitzeko kontratuan funtsezko elementuak falta dira, hala nola prezioa. Horrez gain, zuzenbidearen kontrako klausula batzuk jasotzen ditu; adibidez, kontzejuak fakturarik ez exigitzea. Hori dela-eta, ez dira agertzen eginiko lanen fakturak. 2018ko guztizko zenbateko aitortua 6.205 eurokoa dute.
- Jaietarako gastuan lotura juridikoko poltsa 6.601 euroan gainditu da horretarako aurrekontu-aldaketa izapidetu gabe.
- Jaietarako orkestra-kontratazioan 30.492 euroko gastua egin da, baina ez da ikusten aurretiaz inolako esleipen-prozeduraren lizitaziorik egin denik.
- Jai-txarangaren gastua, 4.500 eurokoa, eskudirutan ordaindu da; hots, araudian ezarritako legezko muga gainditurik. Eta kasuko faktura ez da inondik ageri.

Gure gomendioak:

- *Egin beharrekoak diren aurrekontu-aldaketak izapidetzea, kredituen lotura juridikoko poltsak ez gainditzeko.*
- *Behar diren kontratazio espedienteak izapidetzea legez ezarritako mugak gainditzen diren kasuetan.*
- *Kasu guztietan fakturak eskatzea, eman diren zerbitzuak justifikatzeko.*

### VI.4.4. Inbertsioak

Kontzejuak 2018an egindako inbertsioak 21.358 eurokoak izan dira. Ekitaldian aitortutako gastu guztien ehuneko zazpi egiten dute, eta haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 78koa izan da.

2017ko ekitaldiaren aldean, gastu horiek ehuneko 223 igo dira.

Honako partida hauek aztertu ditugu:

Deskribapena	Aitortutako betebeharrak garbiak
LED-Argiteria publikoa berritzea	15.174
Kontzej. etxebizitzak konpontzea	6.183

Kontzejuaren etxebizitzak konpontzeko obrak behar bezala justifikatuta, kontabilizatuta eta ordainduta daude. Alabaina, eta argiteria publikoa berritzeko obrari dagokionez, honako gorabehera hauek atzeman dira:

- Inbertsio hori 2017an lizitatu eta exekutatu zen. 2017ko bi faktura ageri dira, kontabilizatu ga-beak, guztira 75.871 euroko zenbatekoa egiten dutenak. "interesak" kontzeptua jasotzen dute, kontzejuak eta esleipen-hartzaileak bost urteetan zehar eginiko ordainketa adostu zutelako, baina akordio hori Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legeko 35.3 artikulua xedatuaren kontrakoa da. Kontzejuak kasuko pagamenduak egin ahala egozten dio inbertsioa aurrekontuari; ondorioz, 2018ko abenduaren 31n aurrekontuari egozteko zegoen 58.860 euroko kopuru bat.

- Inbertsioa partzialki finantzatu da Toki Azpiegituren Planaren bidez, eta ez dira kasuko finantzaketa-desbideraketak kalkulatu.

Gure gomendioak:

- *Fakturak sortzapen-irizpideari jarraituz kontabilizatzea.*
- *Kontratazio-araubidean ezarritako ordaintze-epeak betetzea.*
- *Finantzaketa-desbideraketen kalkulua egitea dirulaguntza finalisten bitartez finantzaturiko inbertsioen kasuan, eta aurrekontu-emaiza nahiz diruzaintzako gerakina doitzea, kasua bada.*

#### VI.4.5. Transferentzia-gastuak

Kontzejuak transferentzia arruntengatik izandako gastuak 8.299 eurokoak izan ziren, gastu aitortuen ehuneko hiru egiten dute eta ehuneko 17ko beherakada izan dute aurreko ekitaldikoekiko.

Emandako transferentziak eta dirulaguntzak honako onuradun hauen alde eginak izan dira:

	Arruntak		
	Aitortutako bete-behar garbiak, 2018	% kap.-en gainean	Betetzearen %
Mankomunitateak	7.053	85	78
Irabazi asmorik gabeko erakundeak	1.145	14	38
Beste transferentzia batzuk	101	1	56
<b>Guztira</b>	<b>8.299</b>	<b>100</b>	<b>67</b>

Berrikusi egin dira Zarrakasteluko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari eginiko 7.053 euroko ekarpena eta erretirodunen elkarteari emandako 1.000 euroko dirulaguntza. Eginiko berrikuspenetik, ohar hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Mankomunitateak kontzejuari ez dio jakinarazten ez eta justifikatzen ere urtero egin beharreko ekarpena; besterik gabe, kasuko kopurua zuzenean zorduntzen du kontuan.
- Erretirodunen elkartearen aldeko dirulaguntza banku-transferentziaz egiten da, kasuko erabakia inondik agertzen ez dela.

Gure gomendioak:

- *Mankomunitateari eskatzea eman dezala kide diren toki entitateen ekarpenak onesteari buruzko akten berri.*
- *Erretirodunen elkarteari ordaintzen dioten dirulaguntza arauzkotzea, erabaki edo izendun dirulaguntzaren bitartez eta ekarpenaren xedea, motibazioa eta justifikazioa azaltzen dituen hitzarmenaren bitartez.*

**VI.4.6. Tributuak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerera batzuk**

Tributuengatik, prezio publikoengatik eta bestelako diru-sarrerengatik 2018an aitortutako eskubideek 19.355 euro egin zuten. Udalaren diru-sarrerera guztien ehuneko sei egiten dute, eta honako hauei dagozkie:

Kontzeptua	Aitortutako eskubide garbiak		Betetakoa (%)	Aldearen %, 2018/2017
	2017	2018		
Zuzeneko zergak	2.314	2.314	94	0
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerera batzuk	18.223	17.041	89	-6

Zuzeneko zergetan, 2.314 euro egiten duten eskubide aitortu batzuk agertzen dira, "Hirilur-kontribuzioaren itzulketak" kontzeptuan. Kopuru hori dagokie kontzejuak hirilur-kontribuzioaren zenbatekoa etxebizitzaren errentariei jasanaraziz lortzen dituen diru-sarrerari.

Diru-sarrerera horien kobrantzari legekotzat deritzogu, etxebizitza-errentamenduko kontratuan oinarrituta dagoen heinean; baina ez da tributu-izaerakoa, baizik eta ondare bidezko diru-sarrerera.

Aitorturiko zenbatekoak ez datoz guztiz bat kontzejuak udalari ordaindutako zenbatekoarekin, eta atzeman dugu kontribuzio hori ez zaiela errentari guztiei jasanarazi, tributu-kudeaketako aplikazioan datu-eguneratzea akastuna izatearen ondorioz.

*Gomendatzen dugu diru-sarrerera hori kudeatzeko prozedura berrikustea, bermatze aldera errentari guztiei jasanarazten zaiela kontribuzioa, eta zenbatekoa bat datorrela Figarolgo Kontzejuak kasuko urtean pagatuarekin.*

**VI.4.7. Transferentziengatik diru-sarrerak**

Transferentzia arruntengatik eta kapital-transferentziengatik diru-sarrerak 166.586 eta 33.594 euro egin zuten hurrenez hurren, eta haien multzoak diru-sarrerera guztien ehuneko 65 egiten du.

Aurreko urtearekiko datu konparatiboek honako alde hauek erakusten dituzte:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak		Aldea (%) 2018/2017
	2017	2018	
Transferentzia arruntak	162.281	166.586	3
Kapital-transferentziak	0	33.594	-

Kapital-transferentzietan izandako gehikuntzaren arrazoia da Toki Azpiegituren Planeko dirulaguntza baten aitortpena. Kontzeptu horrek ez zuen exekuziorik izan 2017an.

Transferentzia- eta dirulaguntza-partiden honako lagin hau berrikusi dugu:

Aitorturiko eskubide garbiak, 2018	
<b>Transferentzia arruntak</b>	
Zarrakazteluko Udalarekiko hitzarmena	100.000
Langileak kontratatze dirulaguntza, NEZ	6.000
<b>Kapital-transferentziak</b>	
Toki Azpiegituren Planeko dirulaguntza (LED)	33.594

Eginiko lanetik ondorioztatzen dugu ezen, oro har, aitorturiko eskubideen likidazioa behar adina oinarrituta eta egokiro kontabilizatuta dagoela, nahiz eta honako zertzelada hauek nabarmendu behar ditugun:

- "Zarrakazteluko Udalarekiko hitzarmena" deritzon partidako diru-sarrerak heldu dira 2000. urtean kontzejuaren eta udalaren artean izenpeturiko akordio batetik. Hitzarmen horren indarrez, Zarrakazteluko Udalak kontzejuari eskuordetzen dizkio Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen arabera eskuordetzan emateko modukoak diren eskumen guztiak. Kontraprestazio gisa, udalak diru-ekarpen bat egiten dio kontzejuari, eta hori kalkulatzeko modua hurbildu egiten zaio kontzejuak udal izanik jasoko lukeenari.



- Administrazio-gastuengatik ordaina kalkulatzeko erabilitako formula ez dago hitzarmenean argiro zehaztuta, eta interpretazio ezberdinetarako bidea ematen du.
- Hitzarmenean ekarpenaren izaera finalista jasotzen da, baina praktikan ematen zaion trataera ez da hori, eta justifikatu ere ez da egiten.
- Hitzarturikoa ordaintzeko, funts-aurrerapen bat ematen da, eta gero behin betiko likidazioa kalkulaten da. Azkeneko bi ekitaldiak likidakizun daude gaur den egunean. Praktika hori ez dago hitzarmenean jasota.

*Gomendatzen dugu hitzarmena aldatzea, adieraziz, besteak beste, likidazio-sistema, likidazioa egiteko epeak, kasuko ordainketak eta kontzejuak administrazio-gastuengatik udalari eman beharreko kopurua kalkulatzeko formula.*

#### VI.4.8. Ondare bidezko diru-sarrerak

2018an, ondare bidezko diru-sarrerak 89.273 eurokoak izan ziren, eta ekitaldian aitortutako diru-sarreen guztizkoaren ehuneko 29 egin zuten. 2017ko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko 2ko beherakada izan dute.

Honako kontzeptu hauei dagozkie:

Kontzeptua	Zenbatekoa	%, guztizkoaren gainean Kap. diru-sarrerak	Aldea (%) 2018/2017
Banku-kontu korranteetako interesak	1	0	-90
Hiri finen eta lokalen errentamendua	68.938	77	-3
Lurren errentamendua	20.334	23	1
<b>Guztira</b>	<b>89.273</b>	<b>100</b>	<b>-2</b>

Bi errentamendu-partiden lagin bat berrikusi dugu.

Egindako azterketan egiaztatu dugu ezen, orokorrean, likidazioa eta diru-bilketa araudiaren arabera egin direla; halere, honako alderdi hauek aipatu behar ditugu:

- Errentamendu-etxebizitzaren esleipena lehendakariak egiten du, aginduzkoa den espedientea izapidetu gabe, zeinak bildu beharko lituzkeen esleipen-modua, aplikatu beharreko irizpideak eta kasuko publizitatea.
- Kontzejuko batzarrak tasa eta prezio publikoen onespenera buruzko erabakian sartzen ditu etxebizitza-errentamenduen zenbatekoak, baina jokabide hori ez da zuzena, ondare-ondasunak direla kontuan izanda diru-sarrera horiek zuzenbide pribatukoak direlako.
- Batzuetan gertatu izan da etxebizitzetan obrak egitea kontzejuko batzarraren aurretiazko baimenik izan gabe eta ondoren errenta-ordainketarako aldi baterako salbuespena eskatzea, baina egin den inbertsioa justifikatzeko eta errenta-salbuespena onesteko prozedura bat zehaztuta egon gabe.
- Etxebizitzarako ez diren higiezin errentamenduan ez da jasanarazten Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

Gure gomendioak:

- *Etxebizitza- eta lokal-errentamenduen kudeaketa eraentzen duen arau bat onetsi eta bertan hainbat gai jasotzea: publizitatea, eskaera-prozedura, esleipen-irizpideak eta eginiko obregatik errenta-salbuespena onetsi eta justifikatzeko prozedura.*
- *Tasa eta prezio publikoak onestea horiekin batera jaso gabe higiezin, lokalen eta lursailen errentamenduen, zeren eta zuzenbide pribatuko diru-sarrerak baitira. Horrek ez du ezertan eragotziko kontzejuko batzarrak horiei buruzko informazioa jasotzea.*
- *Lokal-errentamenduetan kasuko BEZA jasanarazi eta likidatzea.*

#### **VI.4.9. Itxitako aurrekontuetako zordunak eta aurrekontuz kanpokoak**

Zordunei eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunei dagokienez, saldo batzuen xehetasunak ez dira ezagunak.

Itxitako aurrekontuetako diru-sarreretan 23.700 euro inguruko diru-sarrerak ageri dira, preskribatuta egon litezkeenak, haiek sortu ziren urtea kontuan harturik. Gainera, eta sistema informatikoan izandako datu-galerarengatik, zordun horietako batzuk ez daude kontabilitate-aplikazioan identifikatuta.

*Gomendatzen dugu eskubidea edo zorra berrikus eta ezaba dadila preskribatu denean edo zordun edo hartzekoduna identifikatzeko modurik ez dagoenean.*

#### **VI.4.10. Gorabeherak**

Kontzejuko ordezkari politikoen artean dagoen eta batzarraren bilkuren aktetan islatua den gaztazka-giroak ekarri du Nafarroako Administrazio Auzitegiari (NAA, aurrerantzean) errekurtsio ugari aurkeztea, bai eta beste epaitze-gune batzuetan ere. Horren ondorioz kontzejuak 2017tik 2019ra bitartean izandako gastu juridikoak 9.344 eurokoak izan dira.

Gaur den egunean ebazkizun dago kontzejukide ohi batek aurkezturiko administrazioarekiko auzi-errekurtsio bat.

Gorabehera hori kontzejukide batek NAAri 2016an aurkezturiko gora jotzeko errekurtsio baten ondoriozkoa da. Errekurtsio horretan eskatzen zen deusezta zedila kontzejuko batzarrak 2016ko irailaren 16an harturiko erabaki bat, zeinaren bidez elkarte bat salbuetsi egiten baitzen "La Residencia" izeneko higiezinaren errenta ordaintzetik, eta kontzejuari 2012ko apiriletik 2016ko apirilera bitartean ordaindu gabeko errenta preskribatugabeen erreklamazioa. NAAk, 2017ko martxoaren 30eko 845. zenbakiko ebazpenaren bidez, izapidetzeko errefusatzen du kontzejuko batzarraren erabakiaren deuseztapena, iritzirik adierazi gabe erabaki hori zuzenbidearen arabera izateari buruz. Aldi berean, errenta ordaindugabeen erreklamazioaren bidez kotasuna onartzen du, eginiko kobrantzak adosturikoak beharrezkoak izan ziren heinean, 2012ko apiriletik 2016ko apirilera bitarte.

NAAren ebazpenaren ondoren kontzejuak erreklamatu ez zuenez, auzitegi horrek 2017ko uztailaren 6an probidentzia bat eman zuen, zeinaren bidez hiru hilabeteko epea ematen baitzion kontzejuari zorra elkarteari erreklama ziezaion.

Adierazitako epea igarota, 2017ko azaroaren 8an, NAAk espedientea Toki Administrazioari bidali zion, bere ebazpenaren betearazpen subsidiariorako. Handik egun batzuetara, kontzejuak 12.338 euroren ordainketa erreklamatu zion elkarteari, eta horrek erantzun zuen esanez ez zegoela inolako zorrik. Alabaina, ez da ikusten kontzejuak horri buruz inolako urratsik egin duenik.

2019ko urtarrilean, Toki Administrazioiko zuzendari nagusiak urtarrilaren 17ko 4/2019 Ebazpena eman zuen, zeinaren bidez deklaratu baitzuen preskribatuta zeudela 2012ko apiriletik 2013ko otsailera bitarteko zor-zenbatekoak, eta adierazten baitzuen ez dagoela zor gehiagorik, kontzejuko batzarrak 2013ko otsailean hartu zuen erabakiaren ondorioz, zeinaren bidez tasa eta prezio publikoak onesten baitira. Ebazpen horri gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu zitzaion, eta ekainaren 27ko 174/2019 Foru Aginduaren bitartez, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilariak partzialki baietsi zuen errekurtsioa, deklaratu zuen 2012ko apiriletik 2013ko otsailera bitartean sorturiko zorra ez zegoela preskribatuta, eta zorraren zenbatekoa 3.682 euroan berrezarri zuen.

Gaur egun, foru agindu hori kontzejukide ohiak errekurrituta dago, hark uste baitu zorra 16.205 eurokoa dela. Elkarrekin ere errekurritu du, zeinaren lehendakaria aldi berean baita kontzejuko lehendakari, eta jotzen baitu ez dagoela inolako zorrik.

Kontzejuak ez du kontabilizatu ez elkarteari 2017an erreklamaturiko zenbatekoa ez eta, gero, Toki Administrazioak ezarritako zenbatekoa ere. Kontzejuak ez du ez ebazpen bat ez beste ere errekurritu.

Oker-berrikuspena ez zen egin administrazio-prozedurari buruzko araudiari jarraikiz, eta lehendakariak onartu du okerra dagoela elkarrekin errentaren zehaztapenean.

Ez da agertzen abian den auziarekin zerikusia duen dokumentazioren bat, hala nola elkarteari errentan emateari buruzko kontratua eta 2012ko tasa eta prezio publikoen onespenerari buruzko akta.

*Gomendatzen dugu ahaleginak egin daitezela dagoen gatazka-giroa lasaitzeko, kontzejuaren gobernatze- eta administrazio-zereginak hobetzeren. Horri dagokionez, gardentasunak gidatu behar ditu Kontzejuko kideen jarduketara politiko guztiak, are gehiago gaur egun dagoen liskar- eta mesfidantza-giroan.*

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Edurne Martinikoren Matxain auditoreak proposatuta jaulkitzen da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2020ko ekainaren 11n

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

